

## KUDEAKETA-POLITIKA

CIDETEC ikerketa aplikatuko erakunde pribatua da, 1997an sortua. Balio erantsi handia duten eta ekonomikoki bideragarriak diren soluzio teknologikoak garatzen eta martxan jartzen ditu enpresetan, eta, horretarako, jakintza teknologikoa erakartzen, sortzen eta transferitzen du. Azken helburua da bere bezeroen lehiakortasuna hobetzea eta gure inguruko enpresa-sarea hobetzeko prozesuan aktiboki parte hartzea.

Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkean dago CIDETEC, Donostian, eta nazioartean erreferentziakoak diren hiru zentro teknologiko biltzen ditu.

### > Energia-metaketa

CIDETEC Energy Storage zentro espezialista da baterien teknologia berriak sortzen eta haiek industriara transferitzen. Zentroak produktu eta prozesu osoak garatzeko ahalmena du, eta zerbitzu hauek eskaintzen ditu: materialak baliozkotzea, fabrikazio pilotua, paketeen ingeniari-tza eta baterien saiakuntza.

### > Gainazalen ingeniari-tza

CIDETEC Surface Engineering erreferentziako zentro bat da gainazalen ingeniari-tzan, eta teknologia horien garapenean espezializatutako berrikuntza-polo baten ardatza ere bai; izan ere, gainazalen balio-kate osoko irtenbideak eskaintzen dizkie automobilgintzaren sektoreari, sektore aeroespazialari eta energia-sorkuntzakoari, besteak beste.

### > Nanomedikuntza

CIDETEC Nanomedicine biomedikuntzaren arlorako material berritzaileak garatzen dituen zentro bat da. Teknologia garatzen jarduten du eta, une honetan, hiru patente-familia ditu balioztatze-fasean. Industriarekin duen zuzeneko harremana baliatuz, teknologia transferitu dezake eta, hala, denbora gutxiago behar da merkatura iristeko.

Zentro horietako bakoitzak bere egoitza eta instalazioak ditu, goi-mailako ekipamenduz hornituak.

CIDETECen IKUSPEGIA da eragile garrantzitsu bihurtzea gure industriaren eraldaketan, eta teknologia nahi du eredu ekonomikoaren oinarrian, hazkundera eta ongizatea sortzeko palanka gisa.

Helburu hori lortzeko, hauek dira gure oinarritzko balioak:

- **Lantalde kohesionatua**, ibilbide profesionalean etengabe aurrera egiten duena, eta kualifikazio-, espezializazio- eta inplikazio-maila handia duena, bai eta gogobetetze-maila handia ere.
- Ikuspegia, **pentasamendu estrategikoa** eta emaitzetara bideratutako estrategia dituen zuzendaritza-taldea.
- **Konpromisoa** dugu gure gaur egungo eta etorkizuneko **bezeroekin** nahiz gure ingurunearekin, irtenbide teknologiko onenak modu eraginkorrean eskaintzeko, betiere haien eskakizunak eta itzaropenak kontuan izanda.
- Bezeroaren zerbitzura jartzeko zaletasuna. Sinetsita gaude CIDETEC bera ez dela helburua, eta haren izateko arrazoia dela **enpresei**, eta oro har gizarteari, **benetako balioa eskaintzea**.
- **Erroka berriei** estrategikoki heltzeko gaitasuna duten pertsonak.
- **Lankidetzarako prestutasuna**, elkarlanaren bidez balioa sortzeko eta gure xedea lortzen laguntzeko gai diren entitateekin.
- **Bikaintasuna** gure lanean eta gure emaitzen kalitatean (emaitzetara bideratuta egotea).
- **Etengabeko hobekuntza**, berrikuntza eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna.
- Gure jardueri dagozkien **baldintzak** zorrotz betetzea.
- **Inpartzialtasun** eta **konfidentzialtasuna** aktibitate guztietan. Gure profesionalak lortutako emaitzak aldatu litzakeen presiorik gabe gauzatzen dituzte beren eginbeharrak, analisi funtzioetarako beharrezkoa den informazio guztia modu egokian kudeatzea bermatuz.

Erakundearen posizionamenduaren erakusgarri, dokumentu hau sinatzen dut kudeaketa-politika hau eta politika horrek adierazten duena babesten ditudala frogatzeko.

Javier Rodríguez  
Zuzendari nagusia